



## Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria  
2020ko otsaila · 361 alea

TOKIKOM

**JUSTIZIAK  
ARRAZOIA  
EMAN DIO**





## PIL-PILEAN 361

2020ko otsaila

Azaleko argazkiaren egilea:  
Fernan Oregi

## Aurkibidea

- 4 **Bote prontuan** Nerea Mendizabal
  - 6 **Begira** Adrian Zubiaren argazkia
  - 8 **Zer berri** Aktualitateko albisteak
  - 14 **Argazki bidez** Aratusteak
  - 18 **Erreportajea** Iraola-Etxebarriko auzia
  - 23 **Kirola** Frontenis lehiaketa
  - 24 **Kultura** Txistudentza
  - 25 **Historia** Ramiro Larrañagaren liburua interneten
  - 27 **Nondik nora** Edurne Iriondo
  - 28 **Sakonean** Korner Morea
  - 30 **Zerbitzuak** Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak...
- IRITZIA
- 3 **Neuretik** Gotzon Elizburu  
*Nekazal produktuen prezioak*
  - 16 **Gutunak** Soraluzeko pentsiodunen mugimendua *Indar handiagorekin egingo dugu aurrera*
  - 16 **Hausmarketa** Airearen kalitatea
  - 17 **Zir(r)ika** P.G. Zanzibar
  - 17 **Puntua** Egoitz Unamuno  
*Leku-izenak*



**Pil-pilean herri komunikabidea**

**TOKIKOM**

**Argitaratzailea**  
Pil-pilean Euskaltzaleen Topagunea  
Errabal kalea 15-1, PK 27  
20590 Soraluze

**Erredakzioa**  
Ubane Madera  
ubane@pilpilean.eus  
Egoitz Unamuno  
egoitz@pilpilean.eus  
605 706 086

**Publizitatea**  
publizitatea@pilpilean.eus

**Zuzentzailea**  
Miren Gallastegi

**Diseinua**  
Goiena  
Oier Larreategi (moldaketak)

**Maketazioa**  
Oier Larreategi

**Inprimategia:**  
Gertu Koop.

**Banaketa:**  
Pil-pilean Ekoizpena

**Lege Gordailua:**  
SS-537-2000

**Tirada:** 2.100 ale

**Babesleak**

**GOKI**  
erreformak

 **SORALUCE**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



**SORALUZeko  
UDALA**

# Lehen sektoreko prezioak



GOTZON ELIZBURU

**B**aseritik bizi nahi duten nekazariak diru gutxi irabazten dute, gutxiegi askotan.

Prezio duinak izatea ezinbestekoa da gaurko eta biharko nekazariak bizimodu horrekin jarraitu ahal izan dezaten. Baina jakiak bakarrik ez dira nahikoa; azpiegiturak, ikaskuntza eta osasun arloko zerbitzuak, banketxeak, internet eta wifia... ere beharrezkoak dira bizimodu beteaz izateko.

Kontsumitzaileek ere badituzte euren arazoak. Soldata eta egoera ekonomiko askotarikoak dauzkate: batzuk prest daude gehiago ordaintzeko, beste batzuk nahikoa borroka dute hilabete bukaerara heltzen; batzuentzat elikagaiek garrantzi handia ematen diete, eta beste batzuek nahiago dute janarietan aurreztutakoarekin telefono hobia erosi. Kontsumitzailea bipolarra da askotan.

Prezioen gaiari jarraituta, bi aspektu aztertu beharko genituzke:

Alde batetik, produktuen berezitasuna. Berezitasun horri esker, kontsumitzaileetako batzuk prest izango dira gehiago ordaintzeko. Produktu berezi hauen bila mugituko gara, merkatura edota saltokietara, eta egiten dugun hautuak prezioen balantzan eragingo du.

Bestetik, hor dago berezitasunik ez duten produktuekin daukagun joera ere. Produktu horiek edozein tokitatik datozela ere, hurbiletik edo urrunetik, askotan ez dakigu nongoak diren, eta garrantzitsuena: ez digu ardura, kontsumitzaileek prezioari begiratzen diogulako bakarrik. Dendariek ere badakite halako produktuen kasuan prezioa dela garrantzitsuena eta ahaleginduko dira preziorik merkeena jartzen kontsumitzaileak bereganatzeko.

Gaur egun, legez, administrazioak ezin du preziorik ezarri, ez erosteko eta ez saltzeko. Bide horretan egindako ahalegin guztiek ez dute ibilbide handirik izango. Gehienak gomendioak dira eta ez dago derrigortasunik.

Negoiazioetan nekazarien eta dendarien arteko hartuemanak oso gogorak izaten dira; gainera, batzuetan erdian bitartekariak izaten dira; transportistak, produktuak poltsetan sartzen dituztenak eta abar... eta denek dute bizitzeko asmoa, normala den bezala. Gainera, kontuan izan behar da dendek saltzen dutena ez dela 8/100 besterik, gainerakoa fabrika edota esportazio bidez komertzializatzen baita.

Prezio duinak izateko bide bakarra, kontsumitzaileen eskuetan dago, geure erabakietan. Eta nekazarien eskuetan ere bai, euren arteko elkarlanean eta nortasuna duten produktuak ekoizten.

**PREZIO DUINAK  
IZATEKO BIDE  
BAKARRA,  
KONTSUMITZAILEON  
ESKUETAN DAGO**

# “Haurraren beharrak asetzeko kantitatea eta kalitatea behar dira”

NEREA MENDIZABAL PSIKOPEDAGOGOA ETA GIZARTE HEZITZAILEA

---

**NEREA MENDIZABAL** PSIKOPEDAGOGOA ETA GIZARTE HEZITZAILEA  
ARGAZKIA: XANTI RODRIGUEZ

---

'Umearekin denbora, kantitatea ala kalitatea?' izenburua duen hitzaldia eskainiko du Nerea Mendizabalek (Zestoa, 1976) martxoaren 4an Haurreskolan. Psikopedagogoa eta gizarte hezitzailea da, komunikazio ez bortitzean zertifikazioa ere badu. Errudun sentimendua izaten ei dute guraso askok, eta hortik dator hitzaldia antolatzeke arrazoia.

**Errudun sentitzen al dira gurasoak?** Daramagun bizi erritmoa seme-alabei eman nahi geniekeenarekin eta bizitzako beste aspektu batzuekin uztartzea ez zaigu erraza egiten. Horrez gain, guraso ona izatea zer den ere norbere idealetan egoten da. Orokorrean, pentsatzen badut baliotsua izateko gauzak lortu behar ditudala, ba lortu beharko dut langile ona izatea, bikote ona izatea, ama ona izatea eta lagun ona izatea. Eta noski, horiek denak lortu behar badituz... Gizarteak zein norberak jarritako presioen ondorioz sentitzen gara errudun.

**Eta zela askatzen da korapilo hori?** Hartzen ditugun erabakiek sortzen dizkiguten pentsamendu edo sentsazioekin lotuta dago. Kontua da nola kudeatu nahi dudun errudun sentsazioa. Izan ere, errudun sentitu naiteke etxean ez egotearren egon nahiko nukeen moduan edo errudun sentitu naiteke familian egotearren ez nabilelako beste aspektu batzuk zaintzen. Errudun sentsazioa, normalean, niretzat inportanteak diren aspektu batzuk zaindu gabe ditudalako etortzen da. Bi eskuetan plater bana dugula irudikatu dezakegu. Lehen platerean, ezkerrekoan familian egotea gustatuko litzaidake gehiago; eta eskumakoan, berriz, landu nahi ditudan beste aspektu batzuk ditut: lana, kirola, lagunak... bi horiek nola integratu edo zaindu nahi ditudan da kontua. Bi plateri egin behar zaie kasu, ikusita eta ulertuta biak direla nire parte, biak existitu daitezzen. Barruko bakea lortzea da gakoa.

**Zer da umeari kalitatezko denbora eskaintzea?** Kontuan hartuko bagenu umeekin zenbat denbora

egoten garen, ez da hainbeste izaten. Sentsazioa dugu egun guztia umeekin gaudela, baina mandatuak egiten, bazkaria jartzen, lanean... Umeekin gaude fisikoki, baina haurrek behar duten presentzia, dedikazio eskusiboa, euri entzutea, ulertzea, euren erritmoak errespetatzea... horiek denak kalitatearen barruan sartuz gero, filtroak murrizten doaz. Gurasook zalantza handiak izaten ditugu, kantitatea ala kalitatea, zer eman behar diegu? Kantitatea handia ez bada ere, kalitatea jarritz gero umearen beharrak aseta egongo direla justifikatzea nahi dugu, baina ezin dugu gure burua engainatu. Haurraren beharrak asetzeko biak behar dira: kantitatea eta kalitatea. Ez dago kalitaterik kantitaterik ez badago. Baina guk ere ,pertsone bezala, gure beharrak ditugu eta horiei arreta jartzen ez badiegu ez gaude kantitate edo kalitate ona emateko baldintza egokietan. Horregatik, garrantzitsua da norbera deseroso, kezkarekin edo errudun sentsazioarekin dagoenean, bi plateren kontua aklaratzea: epaitzen nauen alderdiak zer esaten didan egiten edo egiten ez nabilen ekintza horiez. Nola hartzen ditudan barne bakera eramango nauten erabakiak. Norberak oreka lortu duela sentitzea. Azken batean, barruko bakerik ez izatea ere trasladatu egiten zaio umeari. Umeari ezin diogu eman berak behar duena gure buruarekin ahazten bagara. Hegazkinetako azafatek esaten dute oxigenoaren maskarak erabili behar badira, lehenengo helduari jarri behar zaiola eta gero umeari. Bizitzan berdin.

**Eta zela egiten da hori?** Ba, adibidez, nik nire aspektuak ez badituz alboratu nahi, baina aldi berean nire umearen beharrak ase nahi badituz, denbora planifikatu dezaket umeari eskaintzeko momentu batzuk izango ditudala ziurtatzeko. Berak behar duen moduan, interferentziarik gabe, dedikazio osoarekin eta, era berean, niretzat inportanteak diren bestelako gauzak eginez. Sarri, baina, gure pentsamenduetan bi estremotara joateko joera dugu: umei dedikatzen natzaie edo umerik ez banu bezala egiten ahalegintzen naiz.





## Modaz kanpo

**ARGAZKIA:** ADRIAN ZUBIA (DURANGO)

**TESTUA:** EGOITZ UNAMUNO.

Adrian Zubia argazkilari durangarrak Soralezeko hainbat argazki zabaldu ditu bere Instagrameko @adrizubi kontuan eta horietako bat da hau. "Herri Txiki Infernu Handi programaren bitartez jakin nuen Soralezeren berri. Herri berezia iruditu zitzaidan eta pentsatu nuen argazki batzuk ateratzera joatea. Argazki hau ere berezia da, modaz kanpo dauden hainbat osagai agertzen direlako: telefono kabina, Correoseko buzoia, Correoseko buzoia, "Eta modaz kanpo dauden gauzak erretratatzeko modan badago, beharbada esan liteke gure herria modan dagoela. Ez dakit. Kontsolatzearren diot.





Eguneko Zentroko nagusiak eta gazteak elkarrekin.

# Elkarrengandik aberastuz

Orain dela ia hiru urte Plaentxi Eskolako seigarren mailako ikasleak eta Eguneko Zentroko nagusiak belaunaldien arteko programa lantzen hasi ziren elkarrekin, oso emaitza positiboekin

"Bizitzako edozein etapatan, belaunaldien arteko harremanek pertsonaren garapenean eragin nabarmena eta erabatekoa dute".

Premisa hori oinarri, badira ia hiru urte udalerriko Eguneko Zentroa eta Plaentxi Eskola elkarlanean dabiltzala. Hilean behin, eskolako 6. mailako ikasleek eta Eguneko Zentroko nagusiek ekintzak egiten dituzte elkarrekin.

## Antifazak, sanblasak...

Azkena aste honetan bertan egin dute. Aratusteen aitzakian, antifazak egin eta margotu dituzte; zentroan ipinitako photocallean argazkiak atera dituzte eta txokolatadarekin

borobildu dute ekimena. Otsailean, berriz, nagusi baten senide batek San Blas opilak egin zituen Eguneko Zentroan, bertakoek laguntzarekin. Guztia bideoan grabatu zuten eta, ondoren, eskolan proiektatu zuten ikasleek ikusteko. San Martin egunean, berriz, nagusiak joan ziren eskolara eta txistorra jan zuten elkarrekin. "Gazteek eskolan lantzen diharduten proiektu bat polita dela eta eguneko zentroan komentatzeko modukoa dela ikusten badute, etorri eta esplikatu egiten dute. Behin, adibidez, Santiago bideari buruzkoak esplikatu zizkieten. Gero, ikasleek eurek biderean zatitxo bat egin zuten

eta erromesen ikurra hona ekarri zuten bueltan; harrezkero hementxe dago", esplikatu du Juan Fernandezek, zentroko erizain laguntzaileetako batek.

## "Demaseko eragina"

Elkartruke horren ia hiru urteko ibilbideak erakutsi du praktikak teoriak dioena baieztatzen duela, hau da, belaunaldien arteko harremana onuragarria dela nagusiendako, baita gazteendako ere. "Demaseko eragina" dauka, azpimarratu dute zentroko Raquel Cenzual, Nerea Rascon eta Juan Fernandez erizain laguntzaileek. "Oso harreman ona dute nagusiek eta gazteek. Hasieran, badirudi ikasleei lotsa ematen diela nagusiekin egoteak, baina gero, kalean, nagusiak agurtzen dituzte eta haiek, pozarren, berehala kontatzen digute zela agurtu dituzten".

Gainera, ez pentsa ikasleek eskola-orduak "galtzen" dituztenik Eguneko Zentrokoekin egoteko, ez. "Jolas-orduetan etortzen dira, gero ez dute nahi izaten eskolara bueltatzetik. Iaz, arratsaldeetan ere etortzen ziren, batik bat, udaberrian, nagusiak zentroaren kanpoaldean egoten direnean. Gero, etxean ere komentatu izan dute zein ondo pasa duten nagusiekin. Irakasleek ere interes handia erakusten dute", diote zentrokoek.

## "OSO HARREMAN ONA LORTZEN DUTE GAZTEEK ETA NAGUSIEK ELKARREKIN"



## "Autonomia bultzatzea oinarrizkoa da"

**R. CENZUAL, J. FERNANDEZ ETA N. RASCON** ERIZAIN-LAGUNTZAILEAK

2019ko abenduan hiru urte bete dira Eguneko Zentroa zabaldu zutenetik. Hala ere, langileek uste dute oraindik ezezagun samarra dela eskaintzen duen zerbitzua. Mendekotasuna duten eta etxean bizi diren adineko bizilagunak artatzeko zerbitzua da Eguneko Zentroa. Raquel Cenzual, Juan Fernandez eta Nerea Rascon dira bertako eguneroko langileak.



### Zenbat erabiltzaile dituzue?

17 lagunendako lekua du zentroak, beteta dago. Erabiltzaileak Soraluzekoak eta Eibarkoak dira. Orain itxaron zerrenda ere badago.

### Eta zenbat langile zarete?

Hiru erizain laguntzaile gaude egunero. Horrez gain, psikologo, gizarte langile, erizain eta koordinatzaile bana ere badaude. Aita Mennik kudeatzen du zentroa.

### Beteta dago, baina oraindik ezezagun samarra dela sumatzen dugu...

Bai. Gazteekin egiten ditugun moduko ekintzek gure zerbitzua ezagutzera ematen eta normalizatzen laguntzen dute.

### Normalizatzen. Akaso oraindik aurreiritzi asko dago?

Bai, hori askotan esaten dugu. Baina umeak eta nagusiak elkarrekin ikustean, hori guztia apurtu egiten da.

### Zelako jarduna izaten duzue zentroan?

Eguneroko jardunei dagokienez, errealitatearekiko orientazioa lantzen dugu, egunkaria irakurri eta gimnasia egiten dugu. Horrekin batera, gaurkotasuneko gaiei buruzko tertulia egiten dute. Nutrizioarekin lotutako gaiekin, adibidez, oso gustura egoten dira. Horrez gain, sukaldaritza tailerra dugu, irakurketa errazeko tailerra ere bai, osasun tailerra, eskulanak, antzerki tailerra, film laburrak ere grabatzen dituzte... Tailer guztietan autonomia bultzatzen dugu, hori oinarrizkoa baita; izan ere, gero nagusiak etxera joaten dira, batzuk, gainera, bakarrik bizi dira. Beraz, eurekin lantzen ditugu bereziki, higiene pertsonala, janzkera, paseoak egiten ditugu, mahaia eurek jartzen dute... Gero etxean errazago molda daitezten.

### Norbaitek Eguneko Zentrora etorri behar badu, zer egin behar du?

Udaleko Gizarte Zerbitzuetara jo behar du eskaera egitera. Lekuak, berriz, Gipuzkoako Foru Aldundiak adjudikatzen ditu.

## Konpontze lanak futbol zelaian

Azken asteotan hainbat konponketa egin ditu Soraluzeko Udalak Ezoziko Futbol Zelaian. Batetik, futbol zelaia mugatzen duen sarea zaharberritu dute. Sarea zaharrituta zegoen eta zuloak zituen zenbait tokitan. Hori horrela, sarea osorik aldatu dute. Lan horiek Kirol Aukera S.L enpresak egin ditu, 6.576,35 euroko inbertsioarekin. Horrekin batera, futbol zelaiaren kanpoaldean dagoen aparkalekua margotzekotan dira. Aparkalekuko lerroak guztiz ezabatuta daudelako margotuko dituzte, 1.700 euroko inbertsioa eginez. Lan horiek Jon Murgizu margolariak egingo ditu,



## 30 pago gehiago landatuko dituzte

Etzi, domeka, V. Zuhaitz Eguna ospatuko da. 30 pago-landare sartuko dituzte Urtiazelain. 09:00etan egin dute hitzordua Plaza Berrian elkartu eta oinez igotzeko. Urtiazelain, 11:00ak aldera hasiko dira zuhaixkak landatzen. Ondoren, salda eta txorizoa banatuko dute parte-hartzaile guztiendako Izai aterpean.



Pascual Churrucaren lantegia. ARTXIBOKO ARGAZKIA

# Herritarrei hitza ematea nahi du Bilduk

EH Bilduk moratoria eskatu du Pascual Churrucaren lantegiko proiektua erabakitzeko eta herritarrei hitza ematea nahi du.

Herritarrei zuzendutako batzar irekia deitu zuen EHBilduk atzo, eguena. Oposizioko alderdiak esplikatu du, une honetan, Udalean erabakitzeaz daudela "herriko lehentasunak": "Soraluzerentzat estrategikoak diren proiektuak (Olaldea, SAPA, Pascual Churrucaren,...) eta etorkizun sozioekonomikoa (langabezia, zerbitzuen gainbehera,...) daude jokoan", dio Unai Larreategi bozeramaileak.

Hark uste du inork erabakiren bat hartu aurretik, herritarren iritzia jasotzea beharrezkoa dela. Batik bat, proiektu horietakoren bat gauzatzeko

bestelako erakundeengana diru eske jo behar badu Soraluzeko Udalak: "Iritzi desberdinak ditugu udalerrierendako lehentasunekoak diren gai estrategikoen inguruan. Garrantzitsua iruditzen zaigu ez ibiltzea zinegotziak bakarrik halako erabakiak adosten edo negoziatzen. Adibidez, HAPOa, hau da, Egitasmo Orokorra landu zenean, Alkarrekin bueltan egin zen. Ba orain berdin. Herritarrengandik kontrastea jasotzea beharrezkoa dela ikusten dugu. Hain justu, batzar irekiaren helburua horixe izan da: herritarrei informazioa eman eta haien iritzia bueltan

jasotzea. Gero, iritzi hori lanean segitzeko erabiliko dugu".

## Moratoria eskaera

Adibide modura, Larrategik azaldu du oposizioa eta Udal Gobernuak ez datozela bat Pascual Churrucaren inguruan gauzatu beharko litzatekeen proiektuarekin.

EHBilduko bozeramaileak dioenez, Pascual Churrucaren orubean etxebizitza sozialak egin nahi ditu gobernuek Jaurlaritzaren eskutik. Etxeok orain egin behar direla diote, gainera.

Oposizioak, berriz, gaiari buruz erabakia hartu aurretik, moratoria eskatu du. Uste du "datozen urte luzeetan" berau izango dela aukera bakarra espazio publiko baten gainean eta herriko beharrak aintzat hartuta, erabakiren bat hartzeko. SAPAren egin den moduan, Pascual

Churrucaren proiektua lantzea eskatu dio EH Bilduk Udalari, "bertan dauden aukerak eta herrian dauden beharrak aintzat hartuta". Adibidez, EHBilduk egokiago ikusten du Pascual Churrucaren eraikina bota beharrean, bertan erabilera aintzeko espazioak egokitzea. "Edozein modutan, akaso guk pentsamendu hori dugu, baina herritarrek beste bat dute. Azken batean, horrexegatik nahi dugu herritarrei hitza ematea".

**"GARRANTZITSUA IRUDITZEN ZAIGU EZ IBILTZEA ZINEGOTZIAK BAKARRIK HALAKO ERABAKIAK ADOSTEN"**

**ARRANO**  
taberna  
Etan! eta gazteak  
etxeko pintxoak



Etzaburueta 8  
Telefonoa 943 75 24 01

**IZZAGUIRRE**  
Igeltzeritza




Erakiri berriak • Kalitatezko emaitza  
Erreformak • Era gutxielako igeltzeritza

30 urteko esperientzia • 610 838 913 • 649 867 209

**Armendi Jatetxea**

Sukalde  
tradizionala  
Eguneko menua  
Asteburuetan  
menu berezia  
Karta  
Burduntzian  
erretako bildotsa  
Etxeko tritokak  
Soufflea



Tel.: 943 75 10 02

**ELIZPE**  
HORTZ KLINIKA

Zure gertuko hortz klinika,  
puntu pertsona teknologikoki lan  
egiten duago. Cad-Cam sistema  
bertzalku erabiltzen duago.

Elizburu, 3 behea  
SORALUZE  
Tel: 943 75 25 67  
e-mail: elizpe1@gmail.com

Ordutegia:  
Astelehenetik ostiralera  
9:00 - 13:00 eta 16:00 - 20:00

**BOLIA**  
TABERNA



Pitxoak, ardoak,  
kombinatuak  
Gazte-giroko festa

**Belarrak**  
lana eta  
belardenda



Elkagai  
ekologikoak  
Etxerako zerbitzuak

Santa Ana 22  
943 75 30 11

*Jatorren plazarra, bertatik bertara*

**Batzoki**  
TABERNA




eguneko menua  
asteburuetan  
karta eta razioak

opartariekok eta  
hamburgeriak  
enikago berriak

famila eta  
lagun ardoak  
bertakariak

Dendakak 943 75 20 35

**Hortz klinika**

Erreal 1  
Tel.: 943 75 16 13

Javier Alonso  
Mediku Estomatologia  
K.Z. 48.000.590

Katia Gustinio  
Odontologia  
K.Z. 48.001.541

27 urteko esperientzia  
odontologia, protesiak,  
odontopedatria, ortodontia,  
implantenak, estetika...  
Zerbitzu radiologiko orokorra (SD):  
ekinameta, orto eta tele.



**MENDIZABAL**  
okindegia

Ogiak • Prentzak • Gogorak

Astelehenetik  
ostiralera:  
08:00 - 13:00  
17:00 - 20:00

Larunbatak eta  
igandeak  
08:30 - 13:15

Kalebarren 10  
Tel.: 943 75 13 99



**Txoko**

Eguneko menua,  
plater kombinatuak,  
hamburgeriak,  
opartariekok,  
razioak, pizzak,  
gogorak...

Enkarguak  
egiten dira

Tel. 943 75 17 89



**JUAN MARI**  
ARRAINDEGIA

Ardo tritokak  
Etxera eramateko zerbitzua  
Enkarguak hartzen ditugu

IBORRATZ PLAZA - 943 75 24 48



**FOGASLER**  
ITURGINTZA

943 75 16 46 (Sorluze) - 943 71 82 49 (Oñati)  
fogasleriturgintza@gmail.com



**KLB6**

Kalebarren 6  
943 67 21 26

Mulero eta medien  
moduluetan

Biga Jantzi  
ISOLID  
VERO MODA



**TXURRUKA**  
JATETXEA

Sukalde  
tradizionala  
Eguneko menua  
Asteburuetako  
menu berezia  
Karta

www.txurruka.com  
Tel.: 943 75 15 81



**Kontulan**  
aholkularitza  
ABOKATUAK

Errenta aitortpenak • Administraziozko lanak  
Tratamendu buroikortza • Lan-arloko aholkularitza  
Enpresen kontabilitate/leialtasunak • Kontabilitateak

Santa Ana 13 - 1. eko. 20190 Sorluze  
Tel. 943 75 17 82 / Fax 943 75 01 82



Euskalzaletasunaren alde:





Martxoaren 8ko mobilizazioak iaz. FERNAN OREGI.

## Feminismoaren kultur olatua

Martxoaren 8aren harira, kultur egitarau mardula antolatu dute M8 plataformak eta Udaleko Emakumeen Topaguneak.

Iaz Martxoaren 8aren bueltan eratu zen olatu feminista, kultur olatu feminista modura helduko da aurten herrira. Izan ere, M8 plataformak eta Udalak antzerki, dantza, tailer eta bestelako hainbat ekimen

antolatu dituzte martxoan zehar.

M8 plataformaren egitaraua martxoaren 2an abiatuko da arratsaleko 18:30ean Gaztetxean egingo duten lema tailerrarekin. Martxoaren 4an,

Sormenetik ahaldunduz izeneko tailerra egingo dute Gaztetxean arratsaldeko 18:00etatik aurrera, Txakur Gorria Kolektiboak gidatuta. Martxoaren 7an, herria apaintzeko triki-poteoa egingo dute kalean 19:30ean abiatuta. Martxoaren 8an, 11:30ean, Irradaka dantza entsaiatuko dute plazan, 12:30ean manifestazioa egingo dute herrian zehar eta plazan dantza egin eta gero, bazkari autogestionatua egingo dute.

### Udalaren egitaraua

Martxoaren 6an, 22:15ean, *Erradikalak* ginen bertso-antzerki ikuskizuna eskainiko dute antzokian. Martxoaren 10ean, arratsaleko 18:30ean *Zauri(ak) Erromena, Gorputza*. *Feminismoak* dokumentala proiektatuko da antzokian eta ondoren solasaldia egingo da. Martxoaren 12an, umeendako *Mari, Meri eta Lari* antzezlan eskainiko dute antzokian eta *Una cuestion de genero* pelikula proiektatuko da antzokian. Azkenik, martxoaren 28an, *El Enjambre* antzezlan eskainiko dute antzokian.

## Agerreburuko tumulua izan da aurtengo indusketetan oparoena

Sabuan, Frantsesbason eta Agerreburun iaz egindako indusketen emaitzak herritarrei azaldu zizkien Jesus Tapia arkeologoak. Tapiak azaldu zuenez, Agerreburuko tumuluan espero baino askoz gauza gehiago aurkitu dituzte: suharri zati txiki batzuk, ia berrehun zeramika zati, ehunetik gora giza-hezur zati eta neolito garaiko harrizko



Tapia azalpenak ematen.

aizkora bat. Besteak beste, jakinarazi zuen tumulua erreplika bitartez berreraikitzeo aukera proposatu diotela Aldundiari. Irukurutzetan, berriz, ez dute material aipagarrik aurkitu. Frantsesbasoko tumuluari dagokionez, sakeatuta dago eta material urria aurkitu dute. Sabuan agertu den materialik bereziena garia eta bestelako elikagaiak ehotzeko erabiltzen zen harrizko esku-errota izan da, ez omen da oso ohikoa dolmenetan halako tresnak agertzea.

# Errigoraren kanpaina martxan

Otsailaren 27an hasi eta martxoaren 12ra bitartean, herritarrek aukera izango dute olio eta kontserbak eskatzeko.

Errigorak martxan jarri berri du udaberriko kanpaina, Gure hautuez harro lemapean. Dagoeneko Errigora.eus webgunean eska daitezke Nafarroako Erriberako jakiak. Aurreko urteetan bezala, eskaerak eskuorrien bitartez egin ahalko dira, baina, oraingoan, Errigorako antolatzaileek dei berezia egin diete herritarrei eskaerak internet bitartez bidera ditzaten, horrek asko errazten baititu ondoren egin beharreko kudeaketa lanak.

**Eskari kopurua handitu nahian** Soraluzen, deskarga eta banaketa puntu ofiziala ezarri dute. Horri esker, soraluzetarrek herrian bertan jaso ahalko dituzte eskatutako produktuak. Pil-pilean Euskaltzaleen




Errigoraren kanpainako kartela.

Elkartea, Arrano Elkarte eta Iratxo Goxo-denda arduratuko dira herrian kanpaina bideratzeaz, eta aurten ahalegin berezia egin nahi dute eskari kopurua handitzeko. Horretarako, kanpainaren gaineko informazioa herriko ikastetxe eta hainbat elkartetan ere banatuko dute.

## Erabiltzaile kopuru bikoitza

Udalak duela bi urte zabaldu zuen Ikasgelako bisitari kopurua bikoitzu egin da azken urtean. Hain justu, bi urte hauetan 70 pertsonak eskuratu dute bazkide-txartela. Erabiltzailerik gehienak unibertsitate eta heziketa zikloetako ikasleak diren arren, badira, momentu puntaletan, oposizioak prestatzeko erabiltzen dutenak.



Bi ikasle Ikasgelan.

## Ingeles mintzapraktika taldea abiatuko da martxoan

Herritar boluntario batek gidatuta, martxoan ingelesa praktikatzeko taldea osatuko da herrian. Taldea astean ordubetez batuko da eta izena emateko gutxieneko ingeles maila eskatuko da (B1).

Saioak asteazkenetan izango dira, 19:00etatik 20:00etara, Elkartegian (Etxaburuetan), eta era boluntarioan jardungo duen

herritar batek dinamizatuko ditu. Dinamizatzaileak astero gai bat proposatuko die parte-hartzaileei eta hauek gaiaren inguruan berba egingo dute, talde txikietan banatuta. Lehen saioa martxoaren 4an egingo dute. Izen-emate epea zabalik dago udaletxeko harrera zerbitzuan (943 75 30 43) edo udala@soraluze.eus helbidean.

## Norbere burua zaintzen laguntzeko

Martxoko eguaztenetarako Mima-Te / Mima Zaitex tailerra antolatu du Esperientzia Gelak. Martxoaren 11n, 18an eta 25ean dira saioak, 17:30etik 19:00etara, Itxaropena elkartean, gazteleraz. 30 lagunendako lekua dago eta izen-ematea martxoaren 6ra arte dago zabalik. Izen-emate hurrenkera kontuan hartuko dute.

# Polito eta umoretsu

**TESTUA** UBANE MADERA ZANGITU

ARGAZKIAK: FERNAN OREGI ETA UBANE MADERA

Zapore ona laga dute Aratusteeek. Ederki hasi ziren. Plaentxi Eskolako ehunka ikaslek kaleak eta Zubi Nagusia bete zituzten eta, estreinakoz, Euskal Aratosteak bertan ospatu zituzten. Bide beretik segitu zuen zapatuak. Ikusmira handia eragin zuten mozorroek eta karrozek. Askok, mozorroaren aitzakian, umoretsu jardun zuten eta beste asko mozorro lehiaketara animatu ziren, 23 talde guztira. Herria mugitu egin zen haiekin, 2.058 boto jaso ziren Plaentxia.eus atarian. Epaimahaiaren azken hitzak honako hiru taldeak gailendu zituen: Juari Kakatara, Soralezeko eztria eta Kakartian. Martitzena izan zen, akaso, egunik motelena, euriak baldintzatuta, batik bat. Hori bai, lepo bete zen kiroldegia eta asebeteta geratu ziren umeen dantza-ikuskezunera bertaratu zirenak.





## GUTUNAK

### "Indar handiagorekin egingo dugu aurrera"

#### TXARO LETE

SORALUZeko PENTSIODUNEN  
MUGIMENDUA

Bi urte bete berri dira pentsio duinak aldarrikatzeko Pentsiodunen Mugimendua kalera eta plazetara irteten hasi zela.

Jakinekoa denez, mugimendu hori transbertsala da, eta botere publikoei ikustarazi nahi die beharrezkoa dela pentsioen gaiari eustea, gizonendako zein emakumeendako pentsio duinak eskatuz.

Eskaera hori gauzatzeko Eusko Jaurlaritza zein Espainiako Gobernuaren interpelatu genituen eta urtarrilaren 30eko greba babestu genuen, sindikatuekin, langileekin eta bestelako

sektore batzuekin batera, gazteekin eta ikasleekin, kasu.

Baina hara gure ezustekoa jakin genuenean Itzaropena Erretiratuen Elkarateak ez zuela greba babestu behar, horrenbeste pentsiodun ibiltzen den lekua izan arren eta greba pentsioen aldekoa izan arren.

Argi dugu gure helburuei eustea dela emaitzak lortzeko bidea; eta horrek pentsarazten digu elkarrekin jarduteko egoera berriak sortuko direla aldarrikatzen ditugun bidezko pentsioak lortzeko bidean.

Soraluzeko herritarrei eskerrak helarazi nahi dizkiegu grebari emandako erantzunarengatik eta deitutako mobilizazioetan izandako parte-hartze handiarengatik. Indar handiagorekin -posible bada- egingo dugu aurrera,

gure eskubideen eta gure pentsioen alde astelehenero plazan borrokan, zuenak ere badiren pentsioen alde".

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: aldizkaria@pilpilean.eus

## HAUSNARKETA

### Airearen kalitatea herrian

Zaldibarko zabortegean sua piztuta izan den egunetan, Soraluzen ere izan da airearen kalitatearekiko kezka. Zer iritzi duzu gaiaren inguruan?



**IKER ALDAZABAL**  
ALKATEA

"Hartu beharreko neurrien eskuduntza Osasun Sailarena da eta ez beste inorena. Ni etengabe izan naiz harremanetan Debaberreneko arduradunarekin eta Soraluze, momentu oro, Jaurlaritzak emandako gomendio eremutik kanpo egon da".



**UNAI LARREATEGI**  
OPOSIZIOKO BURUA

"Udalari jarrera proaktiboagoa zegokion. Informazioa da alarmismoa eragozteko bidea eta gure ustez datu objetiboak ez dira behar bezain argi eman. Hori egin ezean normala da ezinegona sortzea, ikusita Eibarren Aratustek ere suspenditu zituztela."



## ZIR(R)IKA

P.G. ZANZIBAR

eta denok lasaiago  
geratu gaitezen,  
Deba ibaira azido  
isurketa ikertu  
zuen talde bera  
jarri dugu lanean.



## PUNTUA



EGOITZ UNAMUNO

## Leku-izenak

Soraluzeko Mapa Toponimikoa aurkeztu berri dute Javi Elorzak eta Jon Basaurik. Bertan, herriko leku-izen asko jaso dituzte, tartean, “antzinako kutsua” duten asko: Serabil, Otsoaitzeka, Lezeaga, Aranbaltz.... Basaurik azaldu zuenez, gaur egunera arte heldu diren leku-izenetako batzuk XVI. mendeko dokumentuetan topatu dituzte; laurhun urtez ahoz aho bizi izan direnak. Hala ere, Elorzak ohartarazi zuen moduan, toponimia ahula ere bada eta belaunaldi batetik bestera alda edo gal daiteke. Elortzak, amorru puntu batez azaldu zuen zela ahaztu den ‘Muskiritzu’ izena ‘Mendigain’ edo ‘Karakate’ erabiltzeko, edo jatorriz ‘Urtiaga-zelai’ zena zela bihurtu den ‘Urkia-zelai’.

Badira, oster, hizkuntza ordezkapenari lotutako aldaketak ere. Neuri gogoan hiltzatuta gelditu zaizkit halako bi kasu: bata, Lapurdiko ‘Larrun’, administrazio frantsesak ohikoa duen begirunez ‘La Rhune’ formara aldatu zuena, eta, bestea, Bilbo inguruko meatze auzoaren izena: ‘Larraineta’, euskararik ez zekiten meatzari etorkinek ‘La Reineta’ moduan interpretatu zutena.

Eta hara non, orain dela gutxi jakin dut, Soraluzen ere badirela toponimo berri bi, gazteen artean entzuten hasi direnak: ‘El Regeche’ eta ‘El Bar Txoki’.



**NEKANE JAUREGI**  
INGURUMEN TEKNIKARIA

"Nik kezka sentitu dut. Uste dut ez dela alarma sortzeko modukoa, baina ez zaio garrantzirik kendu behar. Gaia oso serioa da. Dioxinak eta furanoak oso iraunkorrak dira eta eguraldiaren arabera batera edo bestera joan daitezke."



**LUCIA REGLERO**  
HERRITARRA

"Ba apur bat kezkatuta nago. Ez dakit honaino zerbait iritsi den, oraingoz ez dut ezer igarri, baina apur bat arduratuta banago. Zer gertatuko litzateke honaino iritsiko balitz? Alarmista izan barik, ardura eragiten dit; horrek eta koronabirusaren gaiak ere bai".

# “Orain, Aldundiak mendi-magala egonkortu beharko du”

LUIS PLATA IRAOLA-ETXEBARRI

Legea borrokatu eta irabazi egin du. Arerio indartsua zuen aurrean, Gipuzkoako Foru Aldundia, baina bederatzi urte epaitegietan pasatu eta gero, justiziak arrazoia eman dio Luis Platari.

Testua: **Egoitz Unamuno**. Argazkiak: **Fernan Oregi**.

Luis Platak bederatzi urte eman ditu epaitegietan, etxe aurreko mendi-magalean bi luizi eragin dituen uren auzia dela eta. Azkenean, justiziak arrazoia eman dio Platari. Ondorioz, Gipuzkoako Foru Aldundiak mendi-magala egonkortu eta Iraola errekatxotik datozen urak bideratu beharko ditu. Donostiako epaitegian abiatu zen auzia, EAeko Auzitegi Nagusira pasatu zen gero eta, azkenik, Aldundiak Espainiako Auzitegi Gorenean jarritako helegitea atzera bota duenean amaitu da auzibidea. Orain, Aldundiak martxoaren amaierara arteko epea du lanak abiatzeko. Horixe da sententziak ezarri duen borondatezko epea. Epe horren barruan Aldundiak lanak abiatuko ez balitu, beste aldeak, alegia, Luis Platak, aukera izango luke Aldundia legez lan horiek hastera behartzeko.

## **Zela zaude epaia jaso ostean?**

Pozik nagoela esan beharko nuke, baina ez da hala. Nire aurrezkiak epaitegietan gastatu ditut eta irabazi egin dut epaiketa. Epaia azarokoa da eta oraindik ez dut jaso Aldundiaren komunikaziorik.

2011tik epaitegietan egon behar izan dut, horrela amaitzeko. Baina zer da hau? Nik nahi dudana da nire familia eta ni seguru bizi ahal izatea, besterik ez. Oso gogorra eta oso tristea da egoera honetan bizi beharra, euria egiten duen bakoitzean mendia gainera jausiko zaizun beldurrez. Etxera heldu ezinik ibiltzen gara; eta azkenengo aldian, azaroan, alkatea ere bertan izan zen kañutik lurra ateratzen.

Behin erori bada eta hemen bizi izaten jarraitzen badugu, epaitegietara joan eta epaileak badio ez direla egin beharreko lanak egin, eta hala ere ez bada ezer egiten, zeinek bermatzen du familia hau seguru dagoela hemen? Zenbat diru balio dute gure bizitzek? Hildakoak behar dira zerbait egiten hasteko? Ez al dagokio Aldundiari gure segurtasuna bermatzea?

## **Zer dio sententziak?**

Sententziak dio hamar egunean adierazi beharra dagoela nork burutuko dituen erori zen mendi-magala egonkortzeko lanak eta bi hilabete dituztela lan horiek egiteko; gainontzean, epe hori pasatuta, derrigorrezko ejekuzioa eskatu ahalko nukeela. Oraingoz, borondatezko epean gaude,



Luis Plata, luizia gertatu zen mendi-magala seinalatuz. FERNAN OREGI.

baina epe horretan ezer egiten ez badute, derrigorrean egin beharko dute.

Sententzian oso garbi jartzen du zer egin behar duten: mendi-magala egonkortu eta Iraola errekatxotik datozen urak behar bezala bideratu. Hortxe baitago gaitz guztien iturria. Arazoa da betelaneko bi lur-multzo horiek ofizialki ez direla existitzen.

#### **Nola da hori?**

Autopistako lanak egin zirenean, tuneletatik atera zen lurra, Mekolaldera eroan beharrean, bertan bota zuten. Momentu horretan Aldundiak eta Udalak zergatik ez zuten kontrolatu hori? Ba, inork ez zuen ezer esan eta gainera obra egiteko eratu zen UTEak salgai jarri zuen etxea. Pertsona bat etorri eta erosi egin zuen, baina etxe horrek propio 'ezkutatutako bizio' bat zuen, deklaratu barik zeuden betelaneko bi lur-multzo, eta hori delitua da. Hau iruzur bat izan da. Etxe hau ez zuten inoiz salgai jarri behar. Orain, jarri nire lekuan.

2011. urtean galdera Gipuzkoako Batzar Nagusietara eroan nuen, gure etxearen atzean zeuden lur-multzo haiek legezkoak ote ziren jakin nahian. Garai hartan garraino diputatua zen

Larraitz Ugartek garbi esan zuen ezetz, Aldundiak ez zuela horien inolako berririk eta Jaurilaritza eta Ura agentzia zirela baimen horren berri izan behar zutenak. Ura etorri zenean ere, gauza bera galdetu nion eta erantzuna berdina izan zen: ez zela ageri baimenik. Nola da posible betelan horiek inork ez gainbegiratu izana?

### **Kronologia**

- 2003an, Jaurilaritzak AP-1a egiteko lanak hasi zituen.
- 2007an, Iraola-Etxebarri erosi zuen UTE-ak salduta.
- 2009an, arrakalak atzeman zituen eta Aldundian salatu zuen.
- 2011n, lehen luizia gertatu zen eta Aldundiak ingurua egonkortzeko lanak hasi zituen. Aldundiak ez zituen lanak amaitu eta epaitegietako bidea hasi zuen.
- 2013an, bigarren luizia gertatu zen.
- 2019an, aldeko epaia jaso du.

## ERREPORTAJEA

2014an Aldundiak bere txosten batean aitortu zuen urak goiko betelanaren eraginez desbideratu zirela. Nola liteke Aldundiak hori idatzi eta sei urtera ezer egin barik egotea?

### **Babesgabe sentitu zara?**

Bai. Bederatzi urte pasatu ditut epaitegietan, bakar-bakarrik, Udalaren eta agintean egon diren alkateen laguntzarik eta babesik gabe. Egia da EH Bildu alkatetzan egon zen garaian Udalak zanga bat egin zuela urak bideratzeko asmoz, bere borondaterik onenarekin egingo zuen, baina harrezkero, urak errepidera datoz... Gaia Auzitegi Goreneraino heldu da. Auzia irabazi dut. Gal nezakeen baina irabazi egin dut. Baina, hala ere, inork ez dit laguntzarik eskaini. Ez alkateak ezta oposizioak ere. Zer espero behar dut nik? Tristetzen nauena da herriaren eta herritar guztion ordezkari den alkateak ezer ez egitea guri laguntzeko. Aldundiko garraio diputatuari ere eskatu diot bilera, jakiteko ea zerbait adostu dezakegun eta erantzun dit esanaz bilera ez dela 'pertinentea'.

### **Zure ustez zein da orain arte urak bideratzeko lanak egin ez izanaren arrazoia?**

Benetan, ez dakit. Aldundiak Euskadiko Auzitegi Nagusiaren epaia errekurritu zuen Auzitegi Gorenera jakinda etxearen gainekaldean deklaratu bariko bi lur-multzo daudela. Ez dut ulertzen. Denbora irabazi nahi izan dute? Ikusi ea nik atzera egiten nuen? Ez dakit zer pentsatu. Pentsatzen hasita nago ez dituztela lur-multzoak ireki nahi barruan aurkituko dutenaren beldur.

Autopista administrazioarena da eta administrazioak obra publiko bat egiten duenean ziurtatu behar du dena legearen barruan egin dela. Non dago legea hemen?

### **Inoiz damutu zaizu etxea erosi izana?**

Niretzat etxe honek balio sentimentala zuen, hauxe izan zelako nire gurasoak Salamankatik etorri zirenean lo egin zuten lehenengo etxea. Hori bai, etxea erosi aurretik jakin izan banu hemen zer zegoen, ez nuen erosiko, ezta zoratuta ere. Baina UTE-ak salgai jarri zuen, modu legalean, eta nik, pentsatuz dena zuzen zegoela, erosi egin nuen. Nik orain ahal dudana egiten dihardut seguru bizi ahal izateko, besterik ez.

### **Zer espero duzu hemendik aurrera?**

Aldundia epaia baloratzen ari omen da, baina nahi ala nahi ez, mendi magala egongortu eta urak bideratu beharko ditu. Beldur naiz ez ote den ahaleginduko uren lanak atzeratzen, nahiz eta jakin azkenean egin egin beharko dituela.

**“NIK AHAL DUDANA EGITEN DIHARDUT HEMEN SEGURU BIZI AHAL IZATEKO, BESTERIK EZ”**

**“ZENBAT DIRU BALIO DUTE GURE BIZITZEK? HILDAKOAK BEHAR DIRA ZERBAIT EGITEN HASTEKO?”**

**“GAITZ GUZTIEN ITURRIA BETELANETAN DAGO, BAINA ARAZOA DA OFIZIALKI EZ DIRELA EXISTITZEN”**



Bideratu gabeko urak errepidean. LUIS PLATA



Urak errepide nagusiraino heldu zirenekoa. LUIS PLATA



1. Luizia gertatu zen mendi-magala, Aldundiak egonkortu beharko duena. 2. Deklaratu gabeko lur multzo handia, ura pilatzen dena. 3. Iraola erreka urak oztopatzen dituen lur multzoa . FERNAN OREGI

## "Ni eta nire familia mirariz gaude bizirik"

"Ni eta nire familia mirariz gaude bizirik. 2011n luizia gertatu zenean, ni farola batetik zintzilik gelditu nintzen eta familia osoa etxean inkomunikatuta. Hona ez zen inor etorri eta hurrengo egunean soka baten laguntzaz jeitsi behar izan genuen etxetik. Horren irudiak badituz eta bere garaian herriko udalbatzarrera eroan nituen. Gainera, hasieran esan zidaten luiziaren lurak neronek kendu beharko nituela, baina, azkenean, ez borrokatu gabe, lan horiek Aldundiak hartu zituen bere gain.

2013an bigarren luizia gertatu zen. 2020an gaude eta lanak egin barik daude oraindik".



2011ko luiziaren irudia. LUIS PLATA

## Udala Aldundiaren erabakiaren zain

Iker Aldazabal alkateak adierazi du gaia judizializatu zenetik, Udala epaiketa amaitzeko zain egon dela, "ardura Aldundiarena delako". Esan du duela bi aste jakin zuela epaiaren berri eta ordutik hiru aldiz deitu diola Mikel Uribetxeberria Aldundiko errepidetako zuzendariari, Aldundiak egin asmo duenaren berri ezagutu eta ondoren Luis Platari jakinarazteko: "Mikel Uribetxeberriak esan dit epaia baloratzen ari direla eta horretxan zain gaude". Platak salatu duen babesgabetasuna aipatuta, berriz, alkateak esan du hori bere "sentsazio pertsonala" dela eta horretan ez dela sartuko. "Harremanetan nago berarekin eta Aldundiaren erantzuna jakin orduko bilduko gara". Plaentxia.eus-ek ere galdera egin du Aldundian, baina oraindik ez du arduradunaren erantzunik jaso.

## EH Bilduren ustez, Aldundiak "aitzaki" moduan erabili du epaiketa, lanak ez egiteko

Unai Larreategiren esanetan, Aldundiak "bazekien gain aldeko betelanean urak bideratzeko lanak egitea berari zegokiola baina epaiketa "aitzaki" moduan erabili du "obrak ez egiteko", "auzi honetan bakoitzak dituen ardurak oso argi daude". Gaineratu duenez, "EH Bildu Aldundian egon zen garaian, proiektua prest gelditu zen, baina, gero, EAJ eta PSE-EE gobernuan sartu zirenean ez zuten proiektua osotasunean gauzatu". EH Bildu alkatetzan zela egin zen zangaren inguruan, berriz, adierazi du "momentuko urjentziari" erantzuteko neurri bat izan zela. Horrekin batera, adierazi du arduradun politikoei "arduragaberiz" jokatu dutela: "eskerrak urte guztiotan ez den bestelako ezbeharrik gertatu".

# Antzerki garaia Tiempo de teatro

**ENE BA! Txalo produkzioak**



**EGUNA / DÍA**  
Martxoak 13, ostirala  
13 de marzo, viernes

**ORDUA / HORA**  
22:15

**EGILEA / AUTOR**  
Matthieu Delaporte  
**Alexandre de la Patelliere**

**ZUZENDARITZA / DIRECCIÓN**  
Begoña Bilbao

**ANTZEZLEAK / REPARTO**  
Asier Sota  
Mikel Laskurain  
Ane Gabarain  
Alazne Etxebarria  
Jose Kruz Gurrutxaga

**HIZKUNTZA / IDIOMA**  
Euskara

**SARRERA / ENTRADA**  
5 €

**EL ENJAMBRE Valvén producciones**



**EGUNA / DÍA**  
Martxoak 28, larunbata  
28 de marzo, sábado

**ORDUA / HORA**  
20:00

**EGILEA / AUTOR**  
Kepa Errasti

**ZUZENDARITZA / DIRECCIÓN**  
Mireia Gabilondo

**ANTZEZLEAK / REPARTO**  
Vito Rogado  
Dorleta Urretabizkala  
Aitziber Garmendia  
Getari Etxegarai  
Sara Cozar  
Naiara Arnedo

**HIZKUNTZA / IDIOMA**  
Gaztelera

**SARRERA / ENTRADA**  
5 €



**SORAILUZKO UDALA**  
Kultura Nazioak



**Gipuzkoako Foru Aldundia**  
Nazio, Turismo, Enpresa eta Berrikuntza



**ORAIN KULTURA**

# “Emakumezkoei begira”

**AMAIA ARIZNABARRETA ETA AINARA MUGA ANTOLATZAILEAK**

Martxoan barik, apirilean egingo da Frontenis Txapelketa. Dataz aparte, bestelako berritasunak ere izango ditu aurtengo edizioak. Amaia Ariznabarreta eta Ainara Muga dira Soraluze, Mugituz! topaguneko urteko lehen hitzorduaren antolatzaileak.

## **Noiz izango da aurten?**

Apirilaren 18an, zapatuan, eta 19an, domekan.

## **Ze beste berritasun izango ditu?**

Apirilaren 18an izango da txapelketa mistoa, betikoa. Aurtengoa hirugarren edizioa izango da. Apirilaren 19an, berriz, Emakumezkoei Frontenis Txapelketa izango da lehen aldiz. Nabarmendu nahiko genuke, azken horren baitan bi txapelketa izango direla: bata eskualdeko emakumeendako, euren artean lehiatzeko. Hortik irabazle irtetzen den bikotea lehiatuko da bestean, ondoren jokatu den emakumezkoei txapelketa orokorrean.

## **Hori zergatik?**

Eskualdeko emakumeen artean kirola sustatu eta emakumeei presentzia eskaini nahi diegulako, txapelketa honen

**"FRONTENISAK  
AUKERA EMATEN DU  
MUTILEKIN  
BERDINTASUNEAN  
JOKATZEKO"**



A. Ariznabarreta eta A. Muga.

filosofia ahaztu gabe: lehiatu bai, baina aldi berean elkarrekin ondo pasatu.

## **Eta hori zergatik?**

Batetik, kanpotik datorren jendeak egundoko maila altua duela ikusten dugu. Hori ondo dago, erakusten digulako emakumeen kirolak ere baduela maila altua. Baina, aldi berean, hemen ez da frontenis kulturarik egon, emakumeen aldetik ez da ikusgarritasunik egon; hori bultzatze aldera ere egin nahi dugu ahalegina. Frontenisa kirol erraza da, merkea... Aukera ematen du mutilekin berdintasunean jokatzeko.

## **Eta umeena?**

Pena handia ematen digu, etorkizuna eurak dira eta. Zerbaitetan eragin nahi denean, hurrengo belaunaldiekin kontaktu beharra dago. Baina horrek suposatzen duen lanketa oso handia da. Berri samarra den txapelketa izateko, oraingoz, lan handiegia da guretzat.

## Mendi taldetik laguntza eskea

Martxoaren 15ean Debarroko federazioko ibilbide neurtua Soraluzen egingo da. 500 bat mendizalaren bisita espero denez, laguntza eskatu dute prestaketa lanetarako: ibilbidea markatu, autobusei zein partaideei harrera egin, kontroletan eta bide gurutzetan egon... Laguntzeko gertu dagoena Iratxo goxo-dendatik pasa daiteke azalpen gehiago jaso ahal izateko.



2018ko ibilaldi neurtua.

## Atzeratu egin da boxeo jaialdia

Martxoaren 14an Soraluzen egitekoa zen boxeo gau-bela atzeratu egin dute maiatzera arte. Arrazoia Ixa Rodriguez boxeolari soraluzetarra sorbaldan min hartuta dagoela da. Boxeolariak berak emandako xehetasunen arabera, lesioa osatzeko errehabilitazioa egiten dihardu Gogortuz fisioterapia zentroan.

# Txistudentza eguna martxoaren 14an

Antolatzaileek dei egin nahi diete herriko dantzazaleei eguneko dantza saioetan parte har dezaten.

Herriko txistulari eta dantzaleek IX. Txistudentza antolatu dute martxoaren 14rako, "udaberriari ongi etorria musikarekin eta dantzan emateko".

Herriko txistulariak eta dantzariak Plaza Berrian batuko dira dantza egiteko eta irekia izango den dantza saio "partehartzailea" egingo dute bertan. Aurten, ahalegin berezia egin nahi dute saioak parte-hartzaileak izan daitezen eta dei egiten diete dantzazaleei berauetan parte hartzera. Gainera, salda eta txorizoa jateko aukera izango da eta tragoxka bat hartzekoa ere bai.

Eguneko egitaraua ondorengoa izango da:

- 10etan Txistularien Kalejira
- 11etan bisita Zaharren Egoitzara



Txistudentza eguna, 2016an.

- 11:30ean parte-hartzaileen hamarretakoa Plaza Berrian.
- 12etatik 13etara Dantza saio partehartzailea Plaza Berrian.
- 13etan kalejira eta dantza poteoa herrian zehar.
- 14:30ean Partehartzaileen bazkaria Batzokian.
- Iluntzean, kalejiran kalerik kale, dantza-poteoan.

## Nerea Mendiak batukada ikastaroa eskainiko du

Nerea Mendiak batukada ikastaroa eskainiko du martxoan hasi eta abendura bitartean. Hilean bi saio emango ditu, ostegun eta ostiralean, arratsaldeko 19:00etatik 22:00etara Musika Eskolan. Lehenengo saioak martxoaren 26an eta 27an izango dira. 16 urtetik gorako pertsoneri dago zuzendua.

Matrikularen hilabeteko prezioa 30 eurokoa izango da eta deskontua ezarriko zaie 3 hilabetetik gorako matrikula egiten dutenei. Dagoeneko izena eman daiteke Iratxo goxo-dendan edo soraluzebaturakada@gmail.com helbidera idatzita. Taldea osatzeko gutxienez 14 lagunek eman beharko dute izena.

## 'Biodantza tailerra emakumeendako

Martxoan hasi eta ekainera bitartean, zuzendutako biodantza-saioak eskainiko dira Udal Kiroldegian.

Saioak Ainhitze Elizburu Etxeberria Biodantza (SRT)-ko bidelagunak gidatuko ditu, larunbatetan, bi astez behin, goizeko 10:30etik 12:30era.

Izen-ematea otsailaren 20tik martxoaren 11ra egin behar da, WhatsApp-ez 665239665 zenbakira edo aingerularia@gmail.com helbidera idatzita.

"8 saiotan zehar, musika, mugimendua eta taldearen laguntzaz, Orainean barneratuko gara; bizipoza, lasaitasuna eta gozamena berreskuratuko ditugu" azaldu du Ainhitzek.

## Bizikidetzak langai duten ekimenak

Udaleko Bizikidetzak Mahaiak bi kultur ekimen antolatu ditu martxorako. Lehenengoa, zapatu honetan, arratsaldeko 18:30ean, antzokian eskainiko duten *Bizimiñak* antzezlanak izango da. Minak eta minaren bueltan dabiltzan gaiak izango ditu hizpide, marrazketagai eta abesgai. Horrekin batera, martxoaren 17an (martitzena), arratsaldeko 18:30ean *S(u/a) minetik bakera* . ikus-entzunezko proposamen eszenikoa eskainiko dute. "Bi hilketek eragindako doluetan piztutako sentipenak eta hausnarketak" ditu ardatz. Mahaiak zinegotzi eta alkate ohiak gonbidatu ditu.



# Soraluzeko historia e-liburuan

LARRAÑAGAREN MONOGRAFIA HISTORIKOAREN LIBURU ELEKTRONIKOA ARGITARA

TESTUA SORAPEDIA  
ARGAZKIAK: SORAPEDIA

1993. urtean Soraluzeko Udalak *Soraluze-Placencia de las Armas. Monografía Histórica* liburu mardula argitaratu zuen, Ramiro Larrañagak prestatua. Ordutik hona liburua herriko BIBLIA izan da: ezagutza zabaldu, zalantzak argitu eta herriko identitatea sustatu du.

Baina liburua aspaldi agortu zen eta belaunaldi gazteek ez dute haren berri.

## Abizenak bilatzeko aukera


Bada aurten, 2020an, Soraluze Alkarrekin egitasmoaren barruan, Soraluze-Placencia de las Armas. *Monografía Histórica* liburua digitalizatu eta liburu elektronikoko moduan eskuragarri jarri dute. Bi formatutan dago: epub eta mobi.

Irakurtzeko errazagoa izateaz gain, formatu elektronikoak norberaren abizenak Soraluzeko historian zela agertzen diren bilatzea ahalbidetzen du.

Liburua eskuratzeko, nahikoa da Sorapedian sartu eta Biltegi digitalera joatea. Bertatik jaitsi daiteke liburua, zuzenean.

## Zortzi atal eta argazkiak

Zortzi atalez (eta hainbat eranskinez) osatuta dago liburua: *Herriaren jatorria*, *Industria historia*, *Historia militarra*, *Eliz historia*, *Udal administrazioa*, *Ongizatea eta*



Liburuaren azala.

*osasuna*, *Herri hezkuntza*, *Leinua*, *Baserriak eta armariak*, *Pertsona ospetsuak eta Elezaharrak*. *Eranskinak*: udal arautegiak, testigantzak eta dokumentuak.

Testuez gain, Ramiro Larrañagaren liburuak hainbat argazki historiko ere biltzen ditu, baita herriaren erdigune historikoaren plano ere.

Duda barik, Soraluzeri buruz inoiz idatzi den libururik osoena da Ramiro Larrañagak idatzitakoa.

## SORALUZERI BURUZ INOIZ IDATZI DEN LIBURURIK OSOENA DA RAMIRO LARRAÑAGAK IDATZITAKOA



Ramiro Larrañaga.

## 70eko hamarkadan

*Soraluze-Placencia de las Armas. Monografía Histórica* liburuaren aurrekariak 70eko hamarkadan sortu ziren.

1970ean, Gipuzkoako Aurrezki Kutxak herriz herriko monografia txikiak argitaratu zituen, horien artean Placencia de las Armas izeneko bat ere bazen eta haren egilea Ramiro Larrañaga izan zen.

Baina liburuaren tamaina txikia zela eta, hainbat eta hainbat gauza kanpoan geratu ziren. Ardura edo kezka horrek bultzatu zuen Ramiro Larrañaga ondorengo monografia historikoa argitaratzera. Lan horretan Soraluzeko Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza izan zuen, baita beste honako erakunde hauena ere: Kutxa (Gipuzkoa Donostia Kutxa), Euskadiko Kutxa, BBV Banco Bilbao Vizcaya, Banco Guipuzcoano eta SAPA (Sociedad Anónima Placencia de las Armas).

**NISSAN  
GAURSA**

HEMENGO NISSAN.  
TU NISSAN DE AQUÍ.

**GAURSAN**

# RENOVE PLANAREN LAGUNTZA HIRUKOIZTU DUGU!

**GUTXIENEZ 3.000€\*  
BERMATUTA!**

- > ZURE AUTOAREN ANTZINATASUNA  
EDOZEIN DELA ERE
- > GAMA GUZTIAN

**LAGUNTZAK KUDEATUKO DIZKIZUGU**



Andoni Rico Ordax

☎ 674 801 717

Gamarrako atea, 46, 01013 Vitoria-Gasteiz

✉ andoni.rico@gaursa.com

📱 @grupogaursa

[www.gaurisa.com](http://www.gaurisa.com)

\* 3.000 euroko deskontua zergak barne, Nissan gamarako 2020/02/29a baino lehen egindako eskaeretan. Ikusten den Nissan modelo: Juke. Baldintzak eta ekipamendua modelooren arabera alda daitezke. Kontsultatu modeloak baldintzak eta ekipamendua gure instalazioetan.

# “Deskonfidantza totala da”


EDURNE IRIONDO EIZAGA AUZOA (ZALDIBAR)



Edurne, atzean zabortegia ketan duela, otsailaren 10ean.



Eitzaga auzoaren kartela.



Zabortegia kea dariola. otsailaren 10ean.

Edurne Iriondo (Soraluze, 1979) Zaldibarko Eizaga auzoko Eitzagabarrenengua baserrian bizi da duela hamar urtetik eta bertatik bertara jarraitu ditu zabortegiko luiziarren nondik norakoak. Eguaztenean berba egin genuen berriz berarekin.

## Zer moduz zaudete?

Auzotarron artean erakundeekiko mesfindantza totala da. Hasieran esan ziguten airearen egoera ona zela, baina gezurra zen. Teknikoek eurak esan ziguten hasieran erabili zituzten tresnek ez zuela gaitasunik kutsadura mota horiek neurtzeko.

Gero, lurrak analizatu dituzte, baina ez dute eman neurketen datu zehatzik. Esan duten bakarra da dena ondo dagoela eta guk sinistu egin behar dugu. Herritarrok ere eskubidea dugu datu zehatzak zein diren

jakiteko, guk ere interpretatu ahal izateko.

Orain euria hasi du eta esan dute erreka uretan amoniakoa dagoela... Urak arazteko sistema guztia hankaz gora dago.

Zabortegiko lurrak inguruan ari dira pilatzen 'behin behineko' irtenbide moduan, Ermuko Sallobente auzotik oso getru. Langileek prebentzio neurriak hartzen dituzte, baina hor ari dira inolako babesik ez duten herritarrengandik oso metro gutxira lanean. Herritarrek badute horren berri? Ez dakit agintariak eurek ere badakiten zertan ari diren. Pelota bata bestearen teiltura botatzen ibili dira. Lotsagarria da.

## Zela ikusten duzue etorkizuna?

Hau ez da amaitu eta badirudi luzerako doala. Inork ez du ziurtatzen beste luizirik

gertatuko ez denik. Gertatu denak pentsarazi behar liguke zela dihardugun hondakinak kudeatzen. Hondakinen kudeaketa ezin da laga diru irabaziak izateko helburua duten esku pribatuetan. Arazo honen ardura guztiona da. Gogoeta egin behar genuke sortzen dugun zaborraren eta berau kudeatzeko ditugun sistemen inguruan.

Guzti honen zuzeneko kaltetuak Eizaga auzoko bizilagunak gara, baina gurekin batera inguru guzti hauetako beste herritar guztiak ere bai.

**"HONDAKINEN KUDEAKETA EZIN DA LAGA DIRU IRABAZIA HELBURU DUTEN ESKU PRIBATUETAN"**

# Agur, Korner Morea

LAU URTEKO IBILBIDEAREN ONDOREN, KORNER MOREA ELKARTEA DESEGIN DA

---

## UBANE MADERA

ARGAZKIAK: KORNER MOREA

---

2019a bukatzeaz batera amaitu du ibilbidea Korner Morea elkarte transfeministak. Lau urte eman ditu feminismoaren eta sexu aniztasunaren alde borrokan. Bertako kideek sumatu duten nekeak eraginda eta, batik bat, herrian borroka horri ertsiko dion erreleboa badagoela ikusita, M8 Plataformari pasa diote lekukoa.

### Martxoaren 8ak ikusgarri

Korner Morearen ibilbidean, ahaztezinak izango dira azken bi urteotako Martxoaren 8ak. Haiekin batera, elkarteko kideek beste honako ekintza hauek ere nabarmendu dituzte: MeToo, zubiko zebra-bidea eta pasealekuko jarlekuak margotzea, genero indarkeria salatzen ekintzak (Iruñeko bortxaketarena, bereziki), Kuleruak Buruan...

Finean, oso modu positiboan baloratu dute 2015ean abiatutako lanaren fruitua: "Oso bide polita izan da, asko ikasi dugu eta satisfazio mordoak eman dizkigu. Honek jarraipena izatea espero dugu; gu ez gara baztertuko herriko feminismitik, baina esku gehiago eta laguntza handiagoa behar dugu. Gure eskerrak eta errekonozimendua Soraluzeko mugimendu feministari, M8 Plataformari".

### "Feminismoaren lanaren emaitza"

Azken batean, M8 Plataformak emango dio segida Korner Moreak ekindakoari, haiek Komite Arroxari segida eman zioten moduan. Emaitzak agerikoak dira, gauzak aldatzen doaz: "Jendea nazkatzen hasi da; gero eta argiago ikusten dituztelako desberdintasunak, injustiziak... Jendea kalera irteten hasi da. Azken urteotako Martxoaren 8ak dira horren erakusle. Lehen, M8an betiko lau katuak geunden, orain jende asko eta oso desberdina egoten da. Feminismoak oso lan subertsiboa egin du, urteetan ez da ikusi, baina orain emaitzak azaleratzen ari dira. Feminismoaren lanaren emaitza argia da eta hori onartzea oso garrantzitsua da".

### Gazteen inplikazioa beharrezkoa


Baina... oraindik asko dago egiteko: "Espazio txikietan eredu tradizionala mantentzen dugu. Niri emakume batek esaten badit senarrak eta berak erdibana egiten dituztela etxeko/umeen... zeregin guztiak, ez diot sinisten, nik ere ez baitut egiten. Iraultza etxean hasten da, bakoitzaren barruan, ez M8an plazara joaten. Hori ere garrantzitsua da, baina norberak norbere espazio txikia aldatu ezean (etxea, lana, senarra, seme-alabak...) iraultza hori azalekoa izango da. Hor ere polikiago, baina

gauzak aldatzen joango direla pentsatzen dugu", diote.

Hori bai, bide horretan ezinbestekoak dira belaunaldi berriak. "M8 Plataformako kideak 36 urtetik gorakoak gara. Gazteek bestelako lehenetsun batzuk dituzte, ez dute militantzia guk bezala ulertzen. Hori ez badago, ez dago ezer. Gazteak kalera irteten direnean ikusten da demaseko indarra dutela; akaso eurak ez dira horren kontziente. Teoria badakite, Martxoaren 8ra etortzen dira, lelo bikainak lantzen dituzte... baina ez doaz sakonera eta ez dute antolatzerik nahi, ez gure eskutik eta ezta euren artean ere. Guri geratzen zaiguna ahalegintzen jarraitzea da, baina gazteen artean ez badago benetako jarraipenik, galdera ikurra ikusten dugu".

**"URTEETAN EZ DA IKUSI FEMINISMOAK EGIN DUEN LANA, BAINA ORAIN EMAITZAK AZALERATZEN ARI DIRA"**

**"GAZTEEK EZ DUTE ANTOLATU NAHI, EZ GURE ESKUTIK EZTA EUREN ARTEAN ERE, ETA GAZTE BARIK..."**



M. Lamariano eta A. Berraondo.

**"Azken urteotako mugimendu sozialik handiena faminismoaren eskutik etorri da"**

**KORNER MOREA**

Feminismoa asko indartu den moduan, haren kontrako mezuak ere areagotu egin dira. Askoren artean ez dago ondo ikusita feminista izatea...

Baina ebidentea da arrazoia zeinek duen, zeinek borrokatzen duen berdintasunaren eta justiziaren alde, eta zein dagoen eraldaketa sortzen gizartean. Hor ez daude ez eliza, ezta partidu politikoak ere; hor feminismoa dago. Azken urteotako mugimendu sozialik handiena feminismoaren eskutik etorri da. Hala ere, sarri feminazi esaten digute, nahiz eta feminismoak ez duen inor hil, ez duen inor torturatu... Matxismoak bai, baina matxistendako ez dago halako berbarik. Ez al da harrigarria?



Herritar ugari 2018ko Martxoaren 8an, Plaza Berrian. KORNER MOREA



Zubi Nagusiko zebra-bidea LGBTIQ+ banderaren koloreekin margotu zuten.



Olatz Sebal eta Alana Berraondo #MeToo ekimena aurkezten.

## ZERBITZUAK

### ZORION AGURRAK



**Diego Rizzo Molina**  
Otsailaren 5ean.  
Zorionak, maitia, 11 urte bete dituzulako!  
Familiaren eta lagunen partetik.



**Ainara Gomez Armengol**  
Otsailaren 27an, 5 urte. Zorionak! Ondo pasatu zure egunean etxekoan partetik.



**Nora Larreategi**  
Otsailaren 21ean, 10 urte. Zorionak! 10 urte ia! Patxo haundi bat etxeko guztion partez!



**Urrategi Gantxegi Unanue**  
Otsailaren 26an, 59 urte. Jarraitu orain arte bezela amama bikaina izaten. Zorionak etxekuen partez! Bereziki Sara eta Julenen partez.



**Izer**  
Amama, Aibxitxa eta Osaba Aritzen partetik. Martxoaren 3an, 6 urte. Asko maite zaitugu!



**Borja Aristi**  
Otsailak 29an, 40 urte. Zorionak aitaxo! Aurten bai! Patxo haundi bat etxeko guztion partez!




**Eric**  
Martxoaren 3an.  
Zorionak! Etxekoan partez.



**Markel Larrañaga eta Julen Gallastegi**  
5 eta 4 urte. Otsailak 18 eta Martxoak 6. Zorionak bikote! Jarraitxu beti moduko alai. Patxo haundi bana etxeko danon partez.



**Youssef Ouhammi Boussagui**  
Otsailaren 27an, 7 urte. Zorionak! Etxekoan partez.



**Oihan Larrañaga**  
Martxoaren 4an, 14 urte. Zorionak! Etxekoan partez.



**Mikel**  
Otsailaren 17an, 9 urte! Zorionak! Muxu bat!



**Amaia Agirre eta Unai Calles**  
Urtarrilaren 22an eta otsailaren 7an, 45 urte eta 11 urte. Zorionak! Etxekoan partez.



**Marta Ayora Plata**  
Otsailaren 15ean. Zorionaak etxeko irrifarriari! Ilusioz beteriko urte honegatik! Etxekuen partez.

### HILDAKO ETA JAIOTAKOAK

#### Hildakoak

Severina Rascon Del Caño  
Ignacio Lizarralde Bergara  
Marisa de la Rosa Alonso  
Patxi Aizpuru Txurruka

#### Jaiotakoak

Jakes Elizburu Ruiz  
Unai Elorza Vargas  
Arai Ariznabarreta Mugertza  
June Perez Calvo  
Iraia Perez Calvo

### ESKELAK

#### I. URTEURRENA

## Maria Pilar Zuriarrain Irazusta



2019ko urtarrilaren 2an hil zen.

Zu joan zara, baina zureganako maitasuna ez.  
Ez ditugu inoiz ahaztuko izan dituzun ilusioa eta bizipoza.

Sendia.

JAIOBERRIAK



**Jakes Elizburu Ruiz**  
Otsailaren 3an jaio zen.



**Ekain Arana Lobato**  
Urtarrilaren 21ean jaio zen.



**June eta Iraia Perez Calvo**  
Abenduaren 30ean jaio ziren.

Autobideetako zein aparkalekuetako hesiak irekitzen ditu!

Bertsio eguneratua eta potenteagoa!

Eguno deskontu-sistemarekin jarraitzen du!

Gero eta autobide eta aparkaleku gehiagoz!

Orain Frantzia osoan ere bai!

## GOGOAN IZAN *abiato 2.0* BERRIAK ESKAINTZEN DIZUN GUZTIA!

**BIDEGIK** teleordainketa-gailuaren berria den bertsio hobetu bat atera du gipuzkoar guztientzat.

**Prestazio berriak, erabilera-eremu handiagoa, deskontu-sistema bera...**

**Abiata gailuaren erabiltzailea izan ala ez, dagoeneko [abiato.bidegi.eus](http://abiato.bidegi.eus)-en eska dezakezu gailu berria.**

Eskatu!

**Informazio gehiago:** info@bidegi.eus | 943 105 106  
GI-20 - KP / PK 14,800 - Aritzeta-Usubil

OTSAILAK 27 - MARTXOAK 12

NAFAR HEGOALDEKO UZTA  
ESKUTIK ESKURA

# GURE HAUTUEZ HARRO

ESKATU NAFARROA HEGOALDEKO **OLIBA-OLIO BIRJINA ESTRA** —5 LITROKO BI-  
DOIETAN— ETA **ARROZA, PASTA ETA KONTSERBAK** —12 ONTZIKO SORTETAN—  
**EUSKARAZ ETIKETATUTA ETA EKOIZLEAREN JATORRIZKO PREZIOAN**

[WWW.ERRIGORA.EUS](http://WWW.ERRIGORA.EUS)



ERRIGORA